

BEAR DIRAN BAIMENAKAZ

Depósito legal: BI 774 - 1968

GRAFICAS BILBAO — Gordóniz, 28 — BILBAO

OLERTI

ZUZENDARI: AITA ONAINDIA—LARREA (ZORNOTZA)
BANATZAILLE: X. P. ALBIZU—BILBAO

Urtarrilla-Bagilla, 1968 (I-II)

GUZTIOK OTE OLERKARI?

Olerkia, egun akitua iduri, aldatz-beera doakigula diotenak badira. Egia ote? Poesia malda-beeran daukagula? Ez det uste. Neskatx lirain orrek ederra du jomuga ta itu, izadian ta geure barnean daukagun ederra. Izadiak eta giza-biotzak dirauten arte, beraz, olerkiak ere tente iraungo digu, mardul eta zarbatsu. Jainkoak bezela, azkenik ezpaitu. Hura du iturri, ta sorburua aitu-eziña baldin ba'da, andik datorkigun ura ere agor-eziña izan bear naitaez.

Gure bizitzak badu bere olerki kutsua. Ta guk ori areagotzen alegiñak egin bear; ezker naiz eskui, poesi-usaiez lurrindu bear ditugu geure urratsak; geure inguruan utzi, bai, geuk daramakigun zerbait, geure izate ta gorputzari darion zerbait. Az-

jeiki, eskuratu makil bat eta mendira joan bear nuala, giarrari astiñaldi bat emanaz. Esan bezela egin. Mendiak —adiskide otxana baita ori beti— aspaldian neronen erruz elkar ikusi-gabeak giñan arren, berebiziko begitarte ona egin zidan. Nik eztakit zabala sorginduta al zegoan, ala lo ongi egin baten esku laztankorrek eztiz ene gogamena igurtzia. Dana dala, adiskide on ark eskeñi ikus-kizunez irudimena asi zitzaidan bazter guzietatik izeki ta suak artzen. Goia, mendi-gaillurrak, bideko zernaitxoak, basoa, elur-ondarrak: laburki, begiragarri oro, nortu ta eraski olertsuez mamitu zitzaizkidan. Sorgingarrizko nortze ta mamitze orren indarrez, Goiak ba-zirudian Egunak urrezko azkonez zauritutako *nor bait*. Karraxika nentzun bide ertzean otalorea: aots bizi-pitzatu batek eztarri meea lakartu ta eten-bear ziolarik. Pago bakarti bati neska pertxentaren tankera artu nion. Basoa, ez aritzez zirudian osatua, baizik... *nor baitzue*: oin-oñeen gañean luze-luze egiñak, erne-indarra goi argi-jario artatik egarriz edaten... Zertan jarrai?... Orrenbestez nornaik daki zein elgorriek joa nengoan, gaxo au. *Musak* diralako atsoek atzaparpean ninduten; irudi-miñez nengoan izorra; otzikarak astintzen ninduan; sukar larri batek menderatzen. Gaitz orrek beñere artu zaituten guziok ongi dakizute zenbatetaraiño dan beldurgarri. Zuen goragaleari neurtitz ugarizko lasabidea eman ez artean, aiek larritasunak, aiek izerdi otzak!...» (*Itz lauz*, 29 orr., Donostia, 1934).

Baiña zer balio dute esaera polit, zorrotz, sako-nak, ots, olerkarien pellokeriak, mundu zabalean aunitz korapillo askatu eziñak dauzkagularik? Sentimentuz bizi, alegia, ainbat pertsona gosez iltzen diran bitartean? Ez, olerkia eztezu esaera politik asmatzea bakarrik; zerbait geiago dezu. Olerkia, Heidegger'ek uste zunez, beta bat dezu bizitzaren aurrez-aurre. Ez igaro, arren, gauzen aurretik bizi-tzarako onura-miñez puztua, eskumakil bat bezela

iñork eramana, ark barnean duan izkutua azaldu-erazirik baiño. Gizonari onek emango lioke egiz-kortasuna, bizitzaren aurrean erakutsi bear luken arpegi egiazkoa; ta gertaerak orrela berea emateko aiña izango lirake: pertsonak eta gauzak bakoitza bere einan ezagutu ta maitatzeko indar berezi. Au da: edozein gertaerari, oiñaze, eriotz eta gaitzari ere bai, bekoz beko begiratzen ikasi, eta ondorenez, an ere ba-dala jakin, so egiten dakianarentzat, eder bat, aunditasun bat gorderik.

Olerki begiztea, ikusi degunez, esitu ta besarkatu ezin dan zerbait da. Olerkariak ondo daki, idazterakoan, aurrean eskinka daukan lauki zoragarri artatik pixkat besterik ezin duala paperera aldatu. Azken gabeko zerbait du aren egikizun bi-ziak, idazlearen indarra, nai-ta aundia izan, gai-ñezkatzen duena. Poeta ta jakitunik asko dira azterketa oni buruz galdezka ibilliak. Zer au izkutua baita oso.

Eztiote geienak kasurik egin nai. Datorrena datorren erara, geiegi kezkarazi gabe. Baudelaire'k onela: «O edertasun, nere erregiñ bakar..., zerutik nai lurretik zatozela, neri axol gutxi!». Gaurko olerkarietan naikoa dira, «ertia ertiarren» deritza-ion teoria aintzat arturik, eztiote beren buruari olako galderarik ezar-azi nai. Or lore bat, usaia zabaldu du, beste ezer ere ez. Beste olerkari ta jakitun batzuk —zur, zorrotz ta aundi—, galdera orren ertz eta goibeak, azal eta mamiak aztertu ta ikertzen saiatu dira. Fray Luis de Leon'ek, esate baterako, ori egin ondoren, au diosku: «Olerkia goi-arnasaren ematea, ezta besterik».

Baiña iñork ere ezpaian ipiñi ez duna, au degu: olerkian, eta ertian erabat, «geiago» adierazi ezi-ñeko bat ematen zaigula. Karl Ranher'ek onela azaltzen du «geiago»ori: «Ertia, egiazkoa noski, beti da erti baiño geiago. Ertia, estetika arauz landu ezkeru —erti aundiak sekulan, egiaz, egin eztuna—, bere izatea utzi ta bizi-larrimiñaren lo-

argarri pozoitsu biurtzen zaigu. Bizi-indar bezela dagokion «geiago» hura, berak ere bere buruari eman ezin dezakeon zerbait da... Olerkariak, go-goaren goi-arnasak bultzatua, ixil-ixillik, konturatu gabe, esker-Ats doneak biotzean ixuri dion leza biziak azpiratua, zelaitako loraz naiz biotzen maite-suaz ari danean ere, itz gartsu erreak jalkitzen ditu, betetasun erneberri batez, izatasun osoaren aintzartze bein-betiko batez aseturiko itzak. Aren itza izan ere, beste dei bati deiez dago: erantzuna damakionari deiez, naiak oro asetzen ditun itz eragileari, Jainkoaren itzari deika».

Ez, eztaiogun gaiari geiago eragin. Denok, egun-urratze naiz sartze bat menditik edo itxas-egaletik ikustean, besteenganako maitasuna, aur baten irri-parra oartzean, argi bai argi ikusiko degu gure barruak ori baiño geiago eskatzen zigula, eder-erdi orrekin ez gerala naikotzen, goragoko igon-miñer gelditzen gerala. Jakiña, erdiak Osoa eskatzen. Zer dio onek? Olerkia, naiz-ta gaiez profanua izan, berez beti degula zerutiko.

Ain zuzen, onela naiz arela deitu, ziñez olerkari dana dabillen lurra Jainko-lurra dezu beti, poetak lurkoi batzuen antzera, euren lurra mundua dala esanagatik. Mundua bera ere egiazko ertian, naiz ezta ere, jainko gauza lez darabilgu. Nola iraultu maitasuna, gizarteko griñak, izadiko ikuspegi bikaiñak, biotz-oldarrak, berez naiko eztan gauzaren olako poz-atsegin berezi barik? Gor ta itsu izan diteke olerkari bat; baiña bere izakiak —asmatuak naiz asmatu gabeak—, berak entzun ez arren, barenan ditu txori antzera Jainkoari «pioka». Auxa dala-ta, olerkaririk geienak otoizka bezela idatzi o dute; baita Jainkorik aitatu ezta ere. Or, gauzen barruan ixil dabil deadar mutuan oiur dagian Jainkoa. «Olerkariak ezin dezake Jainkoa piper utzi» zioan Concha Lagos'ek. Oartzeko, Jainkoa doa gure poematan.

Ezta nekeza ondorenak eiotzea. Noiznai bezela, bakoitzaren fede-kemenean datza oro. Jainkoagan siñisterik ez duenak, naiz-ta orrela izan, nekez ezarriko dio Jainkoari bere olerkiaren zirrada; bere oldearen indarra besterik ez tala uste izango du. Errukarria! Beste batzuk ez tute olako galderik ere gatzatu nai. Baiña bietatik bat: zuk zeure eguneroko bizimoduan izatezkoa dana izatez-goitikotik banandu ba'dagizu, akeita ta guriña iganderoko me-zatik, edo-ta otoitza zeure lantegiko papel artetik, olerki-zauskadeak ez tu zuretzat Jainkoarekin zer-ikusirik izango; baiña beste aldera, zuk mundua ta Jainkoa egiazki alkar korapillatzen ba'dituzu, zuk —egiz diotzut—, olerkizko bizi-txakada ortan Jainkoaren dirdari azken bagea garbi ixurtzen zai-zun unerik ederrenetarikoa izango dezu. Itzak, sorgindurik, egi uts biurtzen zaizkizu, Jaungoikoagana bide berri bat irikiaz: eder-atomu batek, betegarri lez, beste bat eskatzen; berdintsu, eguneroko egi bakoitzak ere.

Ta olako olerkia berez soziala degu, giza-alkartasunari zerbitzu eder bat bai dagiogu; lore bat dala, meatz-toki bat dala, naiz biotz-maitasuna naiz gerrea, noiz gosea noiz auzune bateko mixeri gorria abestu. Olerkiak olerki izateko gauzen balioa azaldu bear du, baita auk oso bakunak edo eze-rezak izanik ere. Baiña iñor ezta olerkari, gai oiek ukutu arren, olerki-giroz ukutu ezik: zein epikeran zein liriku kantari, egitasun oiek beren mutu-izatetik itz egitera ateraten ditunean, ordun dezu olerkaria olerkari. Ba-dira olerkari talde itsak, giza-semeen akats, uts eta ermaiñak aizaturik, bertso negarbera atsituak, erti-indar gabeko bitxi-antz ubelak eskeintzen dizkigutenak. Talde ori eztezu iñolaz txalogarri, olerkariak duen egiteko beiñari —gizartea duindu noski— begiratu ezkerro batez ere.

Olerkia nainun daukazu eortzita: illargiaren izpietan, eleiz-arkupeko oski-garbitzailleagan, kale-

espaloiko asfaltu gainean; bai, edozein lekutan
Baiña eortzia dago, ta norbait bear andik ateratze
ko. Egi onen autorpen bizi bat dezu, adibidez, gur
erriak bertsolarien aurrean daukan jokabidea. Er
parantzetan bildurik, jendetza aundia egon oi d
ao-zabal ta txaloka, iñoiz aspertu gabe, abeslari oie
ateraldi zorrotzak entzuten. Ain zaizkie gogoko
Erri-olerkariok, izan ere, gauza ta toki bakoitzea
bere baitan duen ederra, sua, olerkia azaltzen di
gute. Ta gizonak beti bear du amets pixkat biz
tzari jarraitzeko.

Erri xeak ote du olerkirik? Bai. Lerro auetakoa
ezta bakarrik ziñez olerkari diranentzat, edo-ta ele
der-auzietan oituak diranentzat; egia, olerki ida
tzia sarri jende berezi onen eskumende egon o
da bakarrik. Baiña, esana degunez, poesi-era b
dira: olerki *bizia*, au sentikortasun apur bat due
edozeiñen eskuan dago, ta olerki *idatzia*. Baiña ba
da geiagorik: kaleko naiz baserriko jendeak er
ba-du bere itzezko olerkia. Erriaren esakera zarrak
kantu bioztiak, gaurko abesti batzuk..., badute go
argizko litsik. Beraz, olerkiak edertzen digu b
zitza.

A. Onaindia

BAKARDADE

Bakarrik nago nire fedean,
eguzki bat bezala,
argi ilun bat darion eguzki bat bezala,
eguzki itzali bat bezala.

Bakarrik nago nire esperantzan,
semeek abandonaturiko
aita bakarrik dagon bezala
heriotzaren zai
eta heriotza geldi dator, bakar bakarrik
harri bat nunai bezala.

Bakarrik nire maitasunean.
Hildako bat ez bezala,
gizon dorre belar desirkunde galdu
ezer ez bezala
bakar bakar bakarrik.

J. Azurmendi

UDABERRI

Berriz ere primadera da.
Arboletan, parkeko umeetan,
kanpai epeletan, berri dator eguzkia ta berde,
neskatxen jantzi koloretsuetan,
pasian doazen agure xaharren alkandora xurietan
berriz ere primadera da.

Baiñan dorretik behera amilduta dago
nire ordua.
Antsiarik gabe, nekeak betea,
urrunikan ere ez.
Eta zertako berriz ere primadera berri bat?

J. Azurmendi